


Biribi

Taur Kantuak

iKas




Biribi

aur Kantuak

Josiane **Aguerre-Valencia**
Philippe **Albor**

ikas




arkatza

Arkatza paperean zirri, marra
Mundu borobila marrazten dut, hara :
itsasoa bezala, mendia ere bada
eta ttitta hau, nire etxea da.



LOREA

Lilitu (e)ta ireki,
tximeletak ikusi
(e)ta liliraino jautsi,
(e)ta liliraino jautsi.
Tximeleta airatu,
lili ttipia histu
(e)ta hostoak zerratu,
baratzean eihartu.



PinPirina

Pinpirina eskuetan dut gakotu
Nahi baitut nik goxoki ferekatu !
Goifi, beheiti, hegalak ditu mugitu
Eskuko erhiak dizkit kilikatu
Nik egin erhi-kaiola dit urratu
(e)ta pinpirina orduan zait airatu !



Eguzkia

Zeruan jaiki zaigu
goizean jaun Eguzki
bere izpi guziak
luzaturik nasaiki.
Agur dio lurrari,
eztiki edo finki.
Zoriona eskaintzen,
nola gerta, badaki.



Katalingorri

Andereño Katalingorri
Zazpittitta marigoringo
Andereño Katalingorri
zeruraino joango.

Ttitta gorri
lurrean harri.

Ttitta hori
goizean euri.

Ttitta beltza
Eguzki altza.

marigorri

Marigorri, Marigorri,
non ote haiz, Marigorri ?

kopetan

kokotxan

matelan

lepoan

begin

ileetan

sudur punttan

Marigorri, Marigorri,
aira hadi !




HODEIA

Tip, tip, tip,tip,
Euria teiltuan zirimir ari.
Tip, tip, tip !

Ziu ! Ziu ! Ziu ! Ziu !
Tximistak ziu zerua, ziu ! urratzen ari
Ziu ! Ziu ! Ziu !

Tip, tip... Ziu ! Ziu !
Beharriak hetsi (e)ta, kasu ekaitzari !
Tip, tip... Ziu !





KURKUIUA

Jaun kurkuilu handia
kuskuan goxoki da
heldu dela euria.

Euria zirimiri...
kurkuilu gormantari
bi adarrak ageri !

Entsaladari koska
kosk, kosk.
Entsaladari koska
kosk, kosk.

Kosk, kosk, kosk, kosk...



arboia

Bost hosto arbolaren gainean
Bat airatu da haize mehean
Zenbat gelditzen (dira) ? 4

Lau hosto arbolaren gainean
Bat airatu da haize firfiran
Zenbat gelditzen (dira) ? 3

Hiru hosto arbolaren gainean
Bat airatu da haize hegoan
Zenbat gelditzen (dira) ? 2

Bi hosto arbolaren gainean
Bat airatu da haize boladan
Zenbat gelditzen (dira) ? 1

Hosto bat arbolaren gainean,
Bat airatu enbata haizean
Batere ez da gelditzen...



sagarroia

Oihanean sagarroi ederra
Zizare jale gormant gautarra
Erakuts otoi, erakuts otoi, hire sudurra !
Horra eskuan dudan sagarra
Goxa dadila hire beldurra.
Oihanean sagarroi ederra
Zizare jale gormant gautarra
Erakuts otoi, erakuts otoi, hire sudurra !
Horra eskuan dudan sagarra
Goxa dadila hire beldurra.
Oihanean sagarroi ederra
Zizare jale gormant gautarra
Erakuts otoi, erakuts otoi, hire sudurra !
Horra eskuan dudan sagarra
O ! ageri da hire muturra.



ilargia

Gau on, ilargi,
zeruko izar dirdira
Erakuts lurrari
zure aurpegi xuria.

Aldakorra zara beti
Oi, ilargi amandrea.

Ilargibetea
Ilargizaharra
Ilargizuria
Ilargiberria

Aldakorra zara beti
Oi, ilargi amandrea.

Gau on, ilargi,
zeruko izar dirdira

Erakuts lurrari
zure aurpegi xuria.


arraina

Arrain biribil ttipi,
itsasoan ibilki
goiti, beheiti, alaiki.

Uhinetan ixtaklok
badoa klok, arrainxkot.

Plisti, plasta,
plisti, plasta,
plisti, plasta,
burbuilak zarta.

Badoa klok, arrainxkot
uhinetan ixtaklok
klok, klok, klok, klok, klok, klok





ERRONDAN

Gorputzak dantzan
Itzul denak betan
Gorputzak dantzan
Itzul errondan.

Eskuak zarta, zarta.
Erhiak mugi, mugi.
Besoak altxa, altxa.
Begiak kliska, kliska.
Mihia fira, tira.
Zangoak luza, luza.
Gerria itzul, itzul.
Gorputzak salto, salto, salto, salto !

Testua eta ilustrazioak : Josiane Aguerre-Valencia

Hizkuntza gainbegirada : Jean-Louis Davant

Musika : Philippe Albor

Kantariak : Josiane Aguerre-Valencia, Philippe Albor, Patrick Fischer, Ana Aguerre, Haurrock taldea : Clara Ainciart, Maika Alzuri, Keti Avellan, Lutxi Avellan, Xana Avellan, Betty Barrau, Aña Bidegainberry, Sunita Camblong, Amaia Dombritz, Mila Dombritz, Nina Echeverria, Maëlle Franco, Lydie Gomez, Xana Iratzoquy, Keti Jaunarena, Elsa Perez Landaburu, Hegoa Oberson

Musikariak :

Philippe Albor : gitarrak, gitalelea, harmonika, klarineta, perkusioak

Patrick Fischer : gitarrak, dobroa, gitarra baxua, txistua, perkusioak, programazioak

Xabi Etxeberri : biolina

Moldaketak : musikariek

Grabaketa-Nahasketa-Mastering : Patrick Fischer-ek



© IKAS pedagogia zerbitzua, 2014
Diseinu grafikoa : Dominique Uhart - Damien Rodrigues
Argitalpen arduraduna : Aines Dufau
Legezko arduraduna : Maite Erdozaintzi-Etxart
ISBN 978-2-84963-118-8
Gipuzkoan inprimatua 2014ko azaroan

